

## Prentsarako txostena

Guggenheim Bilbao Museoak 2017ko azaroaren 10ean aurkeztuko du

**David Hockney**

82 erretratu eta natura hil 1

## *David Hockney: 82 erretratu eta natura hil 1*

- Data: 2017ko azaroak 10–2018ko otsailak 25
  - Komisarioa: Edith Devaney
  - Londreseko Royal Academy of Arts zentroak antolatutako erakusketa, Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan
- 
- 2012ko berealdiko paisaia-erakusketa baten ondoren, Guggenheim Bilbao Museora itzuliko da artista, erretratuaren inguruko instalazio bizi eta erakargarri batekin.
  - Lan guztiek tamaina berbera daukate, hiru eguneko epean margotu ziren eta aulki berean eserita erakusten dute modeloa, Kaliforniako hegoaldeko argi distiratsuen pean eta atzealdean urdin bizi bera dutela.
  - Artistaren tratamendu bertutetsuari esker, margolan bakoitzeko elementuen uniformetasunak modelo desberdinen arteko desberdintasunak nabarmentzen ditu, eta beren nortasunak gertutasun epel batekin ateratzen dira mihisetik.

Guggenheim Bilbao Museoak *David Hockney: 82 erretratu eta natura hil 1* erakusketa aurkezten du, lan-bilduma berri eta nabarmena biltzen duen erakusketa, non artista britainiarrak berriz ekiten dion erretratuari, sortze-indar berritu batekin; Los Ángeles hiriko arte-egoeraren eta azken urteetan zehar bere bidean gurutzatu diren pertsonen inguruko barne-barneko ikuskera eskaintzen du.

2012an Guggenheim Bilbao Museoak antolatu zuen *David Hockney: ikuspegi zabalago bat* paisaia-erakusketa ikaragarri eta arrakastatsuen ondoren, artistak alde batera utzi zuen pintura eta bere jaioterriko Yorkshire, Los Ángelesera itzultzeko. Pixkanaka, erretratuaren kontenplazio sosegatura itzuli zen, eta 2013ko udan margotu zuen 90 erretratu baino gehiagoz osatutako multzo zabalago bateko lehen lana. Erretratu horietako 82 ikus daitezke erakusketa honetan.

Hockneyk modu kolektiboan kontzebitzen ditu erretratu hauek, arte-corpus bakarra balira bezala. Instalazioak ia kronologikoa den ibilbidea planteatzen du, beste azterketa psikologiko bat burutzeko bidea ematen duena: artistarena berarena. Bildumak aurrera egin ahala, bere egoera emozionala arinduz doala dirudi, hautatutako formatuaren eta bitartekoarengan zuen ustea bezala. Modelo guzti-guztiak bere lagun, familiarteko eta ezagunen artean aukeratu zituen; bere estudioko hainbat pertsona ageri dira, eta baita John Baldessari bezalako beste artista batzuk, edo Larry Gagosian bezalako komisario eta galeristak ere.

“Ospetsuak erretratugintzarako eginak daude”, dio Hockneyk. “Nik ez ditut ospetsuak sortzen; erretratugintzak, bai. Nire ospetsuak nire lagunak dira.” Erretratu bakoitza behaketa bizi baten emaitza da, eta analisi psikologiko baten itxura hartzen du.

Lan guztiek tamaina berbera daukate eta aulki berean eserita erakusten dute modeloa, Kaliforniako hegoaldeko argi distiratsuen pean eta atzealdean urdin bizi bera dutela. Hiru eguneko epe berean margotu ziren denak.

Artistaren tratamendu bertutetsuari esker, margolan bakoitzeko elementuen uniformetasunak modelo desberdinen arteko desberdintasunak nabarmentzen ditu, eta beren nortasunak gertutasun epel batekin ateratzen dira mihisetik. Erakusketa honen bitartez, *selfie*ak eta sare sozialetako erretratu fotografikoak hainbeste ugairu diren garaian, margoturiko erretratuaren papera berraztertzen du Hockneyk, instalazio bizi eta erakargarri batean. Bildumako ukitu desberdina, natura hila hain zuzen, honi zor zaio: behin, modeloetako batek ezin izan zuen hitzordura agertu eta orduan, artistak, pintatzeko grinak jota, estudioan eskura zeukanarekin egin zuen erretratu, fruta- eta barazki-sorta bat erabilia.

***David Hockneyrentzako posatzen.*** Edith Devaney erakusketako komisarioaren erretratu.

Jean-Pierre Gonçalves de Lima-k, artistaren estudioko zuzendariak, bere gain hartu zuen erretratu guztiak programatzearen ardura itzela, bi urte baino gehiagoko epean. Hockneyk bi aldiz pintatu zuen Edith Devaney; 2015eko irailean lehendabizi, 2016ko otsailean bigarrenez. Azken erretratu hori da erakusketan aurkezten dena, behin baino gehiagotan pintatu zituen pertsonen erretratuetakoa batzuk baztertu ondoren.

Edith Devaneyren kontaketa:

Proiektuaren amaiera aldera posatu nuen bigarrenez berarentzat, eta ordurako ni baino lehen bertatik pasa zirenen paratze eta jantziak aztertze aukera izan nuen. Argibide bakarra jaso nuen, ilea biltzearena; lehen erretratuaren erdi aldera, irudia hobea izango zela erabaki zuen Hockneyk. Emakume-modeloetako asko dotore jarri ziren beren erretratuetakora, beraz, aldatzearren, arropa informalagoekin agertzea erabaki nuen. Goizeko bederatiak inguruan hasten zen saioa. Estudioa oso ordenatua ageri zen, inprimaturiko mihisea gertu astoan, eta pintura, pintzel eta paleta guztiak astoaren eskuinean zegoen mahai baten gainean jarrita. Aulkia zeukan plataforma ezkerretan zegoen, astoaren parean. Aulkian eserita, jarrera desberdinak probatu nituen, eta aurreraka makurtu nintzen burua eskuaren kontra jarrita, naturala eta familiarra iruditu zitzaizkidan jarreran. Gustatu zitzaion jarrera Hockneyri, hiru egunetan mantenduko nuela espero.

Prozesuaren lehen parte, eta beharbada biziena, Hockneyk inprimaturiko mihisean zuzenean ikatz-ziriz egindako marrazkia izan zen.

Buruaren, gorputzaren eta aulkiaren estudio hori “posea finkatzeko” prozesu gisa definitzen du berak, ikusten duena pintatzen duela dio, eta dena ikusteaz bermatzen da. Bere begiradaren zorroztasuna eta arreta nabariak ziren, burua etengabe mugitzen baitzuen modelotik mihisera, eta mihisetik modelora berriz bueltan.

Behin marrazkia osatuta, pintura hasten da. Erretratu denak daude pintura akrilikoz eginak, Hockneyk hogei urtetan erabili ez zuen bitartekoarekin, hain zuzen. Lehen margolanen ondoren, gel gehiago duen beste marka

bat erabiltzen hasi zen, eta, ondorioz, luzaroago gelditzen zen heze lana; horrek, hiru egunetan zehar, bere modeloaren aurpegian ñabardura txikiak gehitzeko aukera ematen zion.

Bazkari eder bat egiteko ordubeteko geldialdia egin eta elkarrizketa bizi bat izan ondoren, arratsaldeko azken orduak arte luzatzen ziren saioak. Goizeko eta arratsaldeko etenaldietan mihisetik distantzia jakin batera zegoen besaulki batean esertzen zen Hockney, zigarreta bat erretzen zuen bitartean lanaren bilakaera aztertzen zuela. Geldialdi horietan zehar, pinturaren aspektu desberdinez jarduten zen, baina erabateko isiltasuna mantentzen zuen pintatzen zuenean.

Prozesua guztiz fisikoa da Hockneyrentzat, etengabe aurrera eta atzera mugitzen baita, mihiseari gertutik eta distantzia jakin batetik begiratzeko. Arintasun-sentsazio ikaragarria dago bere mugimenduetan, pintzela pinturaz bustitzeko eskua luzatzen duenean, kolore berriak nahasten ditueneko edo pintzel desberdin bat hautatzen duenean. Motor elektriko baten laguntzaz igo eta jaits dezake astoa; hortaz, lan zorrotza, xehetasunen lana, beti burutzen du garaiera perfektuan.

Prozesu osoan zehar, bere arretaren intentsitatea ez da batere gutxiagotzen. Senti dezakeen neke-zantzurik txikiena sormenak ematen dion plazerak berdintzen du amaieran.

Modeloak plazer horren parte dira, irudia sortuz doan heinean. Arrazoiren batengatik, nire erretratua familiarra eta arrotza begitandu zitzaidan aldi berean. Hockneyk "ikusten duena" pintatzen duela dio, denok modu desberdinean ikusten dugula onartuta, gure ikuskera gure esperientzia anitzek mugatzen dutelako. Miatze zorrotz horren objektu izanda, pentsamendu-prozesu propioek norberaren aspektu fisikoan duten eraginaren inguruan pentsatzen duzu, eta Hockneyk barne-komplexutasun hori islatzeko duen abilezia bikainak erakusketaren intentsitate psikologikoa nabarmentzen du.

Behin nire erretratua osatu zuenean, nire nortasuna jasotzerik lortu ote zuen galdetu nion. "Zure alde bat jaso dut", ihardetsi zidan. "Lehen erretratuak aspektu desberdin bat jaso zuen eta, hirugarren bat egingo banu, desberdina suertatuko litzateke beste behin". Hockneyk erretratuarekiko sentitzen duen lilura bereizezina da gizon-emakumeenganako sentitzen duen sinpatia sakonetik, eta baita gorpuzten ditugun hauskortasun guztietatik ere: "giza komedia", berak deskribatzen duen bezala.

## **Modeloen aukeraketa**

### **Margaret Hockney**

David Hockneyk hiru anaia eta arreba bat dauzka, eta denak daude oso bat eginda. Hala ere, beti mantendu izan du lotura berezia Margaretekin; azken urteetan hainbat abagunetan margotu du erizain erretiratu hori, batez ere Davidek eta berak denbora asko pasa zutenean elkarrekin Bridlingtonen, artista Yorkshireko paisaiak lantzen ari zenean. Iaz Pauline Ling lagun minarekin bidaiatu zuen Los Angelesera, eta azken horrek ere posatu zuen erretratuetakoa baterako.

## Rufus Hale

2015ean Tacita Dean artista britainiarrak denbora bat iragan zuen Los Ángelesen, Getty Institute zentroan ikerlari. Denbora-tarte horretan bisitatu zuen Hockney, beranduago *Erretratuak (Portraits, 2016)* lanean kontenplaziozko jarreran erretzen ari zela filmatuko zuena. Bere bisitan, hamaika urteko Rufus semea izan zuen lagun.

Gazteak bere burua ekarri zion gogora artistari, bere adina zuenean, eta Rufus pintatzeko beharra sentitu zuen; modelo paregabea suertatu zen mutikoa eta bete-betean hartu zuen parte prozesuan.

## Jean-Pierre Gonçalves de Lima

Jean-Pierre Gonçalves de Limak Londresen ezagutu zuen Hockney, artistaren tailerren berarentzako lanean aritu zenean. Jatorri portugaldarreko musikari paristarrak Bridlingtoneko Hockneyren estudio handia zuzendu zuen, hark Yorkshireko paisaien pintura-bilduma sortu zuen denboran. Erretratu hauen obratze-garaian ere lagundu zuen Hockney, saio bakoitza planifikatu, artistarentzako pintura-materiala prestatu eta argazki-artxibo zabala sortzen; azken horrek erretratu bakoitzeko fase desberdinak dokumentatzen ditu.

## Gregory Evans

Gregory Evans Hockneyren adiskide mina izan da hainbat hamarkadatan zehar, eta sakon ezagutzen du bere obra. Artistarekin batera sortu zuen David Hockney Studio, eta bertan dihardu zuzendari, artistaren obra eta artxiboak gainbegiratzeko dituen estudioan. 971n Los Ángelesen 1 lehen aldiz elkar ezagutu zutenetik, maiztasunez posatu du Evansek Hockneyrentzat. Daukaten harreman onari esker eta Evansek Hockneyrentzako posatzeko unean duen esperientzia nabarmenaren ondorioz, bildumako bareenetakoa da bere erretratua.

## Celia Birtwell

1960ko hamarkadan lehen aldiz elkar ezagutu zutenetik, Celia Birtwell ehun-diseinatzailea Hockneyren lagun minenetako bat izan da. Birtwellek eta bere senar ohiak, Ossie Clark moda-diseinatzaileak, artistaren *Clark jaun-andreak eta Percy (Mr and Mrs Clark and Percy, 1970–71, Tate)* erretratu bikoitz sonaturako posatu zuten. Orduetik, bere modelo femenino ohikoena izan da Birtwell.

2015eko udan Hockney bisitatu zuenean, Andy Palmer bere senarra eta Isabelle Clark bere iloba zeramatzan bidaide, eta horien erretratuak ere bilduma honetan ikus daitezkeen.

## Bing McGilvray

Bing McGilvray, Bostonen erroituriko artista, Hockneyren laguna da duela zenbait hamarkadatik. Hockneyk izugarri balioetsi eta disfrutatzen du bere konpainia lasaia eta bere zorroztasun bizia, eta biek dute tabakoa pasio. Los Ángelesen ohiko bisitari, McGilvrayk artistari lagun egin ohi dio, bere taldeko kideak bidaian daudenean. Okasio desberdinetan pintatu du Hockneyk, eta erretratu bakoitzak bere pertsonaren aspektu desberdin bat jasotzen du.

## **John Baldessari**

Bada denbora bat jada John Baldessari artista kontzeptuala, Kalifornian jaio eta hezia, AEBtako mendebaldeko kostaldeko artista garaikide sonatuenetako bat dela. Hockney baino urte batzuk zaharragoa, bere laguna izan da hainbat hamarkadetan zehar.

## **DIDAKTIKA**

BBK-k babestutako Didaktika proiektuaren parte gisa, Museoak espazio didaktikoak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu, erakusketa bakoitza osatzen dutenak, eta erakutsitako lanen ulermena eta hautematea errazteko erreminta eta baliabideak eskaintzen dituztenak.

Oraingo honetan, *David Hockney: 82 erretratu eta natura hil 1* erakusketari eskainitako *IN FOCUS* espazio didaktikoan, erretratuak Hockneyren sortze-ibilbide osoan zehar izandako garrantziaren berri ematen da, eta baita artistaren sortze-prozesuari buruzko giltzarrien berri ere; erretrataturiko pertsonen garrantzia eta artistarekin duten lotura emozionaletik hasita, obrak gauzatzeko erabilitako teknika eta aurrerapen teknologikoetaraino, argazki analogikoak edo iPad-ak kasu.

Hezkuntza-izaera duen informazio osagarri hau 105. galeriaren barruan aurkitzen da, Hockney modelo bat marrazten erakusten duen erretratu baten ondoan, zeinak artistak Los Ángelesen duen estudioa lekualdatzen gaituen. Erakusketaren komisarioa den Edith Devaney-ek artistari egindako elkarrizketa bat ere erakusten da, non erretratu-multzo honen esanahi pertsonal eta artistikoa aztertzen den.

Erakusketako beste hezkuntza-jarduera batzuk

### **Erretratu sekretua - Bisita espresak**

Erakusten diren erretratuak gauzatzeko, lanerako jarraibide berberak erabili zituen Hockneyk guztietan: modeloetako bakoitzarekin hiru egunez egin zuen lan, denek posatu zuten leku bereberetan eta atzealde berdinarekin. Baina, atrezzoaz haraindi, modeloetako bakoitzaren izaeraren "ezagutza sekretua" da artistari inspirazioa ematen diona.

Erakusketako bisita laburretan, ordutegi eta hizkuntza desberdinetan Museoaren sarrerarekin bat dohainik egiten direnak, artistaren lan-multzoaren ideia giltzarriak ezagutzeko aukera ematen da. Gainera, jolasa ikaskuntzarako erreminta gisa baliatuz, fisikoki eta psikologikoki deskribatutako pertsonaien identitateak ezagutu ahal izango dituzte taldeko kide desberdinek, gainontzeko parte-hartzaileek egindako galderetatik abiatuz. Talde-partaidetzaren bitartez sortutako erretratu birtualak egingo dituzte, hizkuntzaren erabilera indartuz eta memoria-mota desberdinak estimulatuz, bisuala edo entzumenezkoa kasu.

### **Partekatutako hausnarketak**

Museoko profesionalak egindako bisita paregabeak, muntaiaren zirrikituak eta erakusketako beste xehetasun interesgarri batzuk ezagutzeko.

- Arte-arduradunen ikuspuntua Petra Joosekin, Guggenheim Bilbao Museoaren arte-aruraduna (azaroak 15)
- Funtsezko kontzeptuak Marta Arzakekin, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntzako eta Interpretazioko Zuzendariordea (azaroak 22)  
\*Babeslea: Vizcaína Aguirre Fundazioa

### **Azaleko irudia:**

David Hockney bere estudioan, Los Angeles, 2016ko martxoak 1

© David Hockney

Argazkia: Jean-Pierre Goncalves de Lima

### **Informazio gehiagorako:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944359008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Prentsa irudiak:  
***David Hockney: 82 erretratu eta natura hil 1***  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Qso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, [media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

David Hockney

*Dagny Corcoran, 2014ko urtarrilak 15, 16, 17 (Dagny Corcoran, 15th, 16th, 17th January 2014)* hemendik: *82 erretratu eta natura-hil 1*

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



David Hockney

*Jacob Rothschild, 2014ko otsailak 5, 6 (Jacob Rothschild, 5th, 6th February 2014)* hemendik: *82 erretratu eta natura-hil 1*

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



David Hockney

*David Juda, 2015eko martxoak 22, 23, 25 (David Juda, 22nd, 23rd, 25th March 2015)* hemendik: *82 erretratu eta natura-hil 1*

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



David Hockney

*Barry Humphries, 2015eko martxoak 26, 27, 28 (Barry Humphries, 26th, 27th, 28th March 2015)* hemendik: *82 erretratu eta natura-hil 1*

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt





David Hockney

*John Baldessari, 2013ko abenduak 13, 16 (John Baldessari, 13th, 16th December 2013)*


hemendik: 82 erretratu eta natura-hil 1

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



David Hockney

*Rita Pynoos, 2014ko martxoak 1, 2 (Rita Pynoos, 1st, 2nd March 2014)*

hemendik: 82 erretratu eta natura-hil 1

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



David Hockney

*Celia Birtwell, 2015eko abuztuak 31, irailak 1, 2 (Celia Birtwell, 31st August, 1st, 2nd September 2015)*

hemendik: 82 erretratu eta natura-hil 1

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



David Hockney

*Rufus Hale, 2015eko azaroak 23, 24, 25 (Rufus Hale, 23rd, 24th, 25th November 2015)*

hemendik: 82 erretratu eta natura-hil 1

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



David Hockney

*Edith Devaney, 2016ko otsailak 11, 12, 13 (Edith Devaney, 11th, 12th, 13th February 2016)*

hemendik: 82 erretratu eta natura-hil 1

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



David Hockney

*Earl Simms, 2016ko otsailak 29, martxoak 1, 2 (Earl Simms, 29th February, 1st, 2nd March 2016)*

hemendik: 82 erretratu eta natura-hil 1

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney



Argazkia: Richard Schmidt

David Hockney

*Fruta banku baten gainean, 2014ko martxoak 6, 7, 8 (Fruit on a Bench, 6th, 7th, 8th March 2014)* hemendik: 82 erretratu eta natura-hil 1

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



David Hockney

*Margaret Hockney, 2015eko abuztuak 14, 15, 16 (Margaret Hockney, 14th, 15th, 16th August 2015)* hemendik: 82 erretratu eta natura-hil 1

Akrilikoa mihise gainean (82 alez osatutako lana)

121,92 x 91,44 cm

© David Hockney

Argazkia: Richard Schmidt



David Hockney, Los Angeles, 2016ko martxoak 9

© David Hockney

Argazkia: Jean-Pierre Goncavles de Lima



David Hockney bere estudioan, Los Angeles, 2016ko martxoak 1

© David Hockney

Argazkia: Jean-Pierre Goncalves de Lima

